

DENBORA
MUGA
BARIK.

Joan den urtean Irakurri, mesedez kanpaina sortu genuen Euskal Idazleen Elkartearen eskutik, eta Bizkaiko Foru Diputazioaren bultzadaz. Horren helburua Bizkaiko idazle garaikideen literatura herritarrengana hurbiltzea izan zen.

Aurten gauza bera egin nahi dugu baina Bizkaiko idazle klasikoen testu esanguratsu batzuk gaurkotuz, Denbora Muga Barik lelopean.

Joan den mendeko Bizkaiko idazleek erabilitakoa idazti askotan gai erlijiosoak agertzen ziren, eta baten bat bere horretan ekarri badugu ere, bestelako anekdotak, koplak, baladak, kontakizunak, sineskeriak edo ipuinak plazaratu nahi izan ditugu.

Tartean aipatu behar da Euskal Herria edota euskara bera testu askoren ardatza direla. Gaur bezala, garai haietan ere, kezka-gaiak baitziren.



metro bilbao



Bizkaia
foru diputazioa
diputación foral

EIE Euskal Idazleen Elkartea
=====

ITXARTU, EUSKO ALABEA!

Ortzia garbi ta oztin
dakusku, sorkaldean
argi gorri biguntxua
zabalduten hasi da.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!

Euskadi, geure aberria
da arrotzaren jopua.
Oinartean, ilunpetan,
danok lo egon gara ta,
bere negar, zotín, oiñu
mingotsak, entzun baga.
(...)

Eta zu ondino lo zagoz,
ene ahizta kutuna?
Ez zaitu, ba, ondino itxartu
lanaren zarateak?
Itxartu eusko alabea,
jagi, ba, emakumea!

SORNE UNZUETA,
UTARSUS
(1900 - 2005)

Umea, geixorik badau
osatzeko izaten da
osagarririk onena,
amaren maitasuna;
baita emakumeen bihotzak,
gaizkatzeko aberria.
(...)

Zeure odolaz hazitako
seme txiki politik,
sehaskan, lo samurkiro,
egiten dauan bitartean,
abestu olerki aberkoiak
eusko abesti gozoak.

Zuk hazitako semeak,
zuk egindako ikurriñak
lortu-iragarriko dabe
Euskadi-askatasuna.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!

BARTOLOME
MADARIAGA,
(1798 - 1835)

Olgeeta guztien artian lekurik zabalena ta zer pensau geijeen daukana da dantzia. Lenago edo geruago, modu batera edo bestera, gitxiago edo geijago dantzetan ez dan olgetiak, ez dauka gatzik, ez dauka gustorik. Orregaiti ainbeste gauza esan dira ta eskribidu dira, Moisen denporati ona dantziaren gainian. Batzuk lau ormaren artian sartuta, dantziak berezko izatian daukazan asmo utsai jarraituta, eskribidu ebeenak. Ta bestiak, gizonaren naturaleza jausijari begiratuta, Ebanjelijoko espiritubagaz naasteko dantzia egiten dabeen moduban esaminauta, eureen gainian berba egin daueenak. Areek esan dauee, dantzia berez ez dala pekatu. Ta bestiak, dantzia berez pekatu izan ez arren, egiten dan moduban ta naturaleza jausijak gizon ta emakume naaste egin leijan moduban, pekatu dala edo pekatuko okasino urrekua dala.

Menturaz ez da kristandade guztian dantza desonestubagorik ta lotsa gitxiagorik egiten egun argiz, euskal-errijetan baino. Jazo leiteke au geure euskeran kasik ezer bere eskribiduta ez dagualako dantza galduben gainian.

Bada, izanik euskal-errijetako jentia kristinautasun andikua euren tratu, artu emon ta egitade guztietan, dira txito nasaijak euren olganzako dantzeetan.

Au gaiti pensau dot, azartu biar dodala naasteko dantzeen bereno madadikatuba azaldeetara, euskal-errijetako kristinau itsubak kontuban jausi ditezan eureen uts egite andi onetan. Ta ene ondorik beste batek argi geijagogaz, pluma obiaguagaz ta zelo santubaguagaz amaitu dagijan sail au. Eskatuten deutseet guztiai: au irakurri, noberari ez bajuako legez, naasteko dantza begiratu ta dantzarijak ondo ondo esaminau artian, ez naijela simplezat euki.

Amesetan beñ aurkitu nintzan pozik basuan,
Larratuagaz artaldetxo bat ene inguruan,
Usterik antxe bizi nintzala libertadean,
Pentsaurik dontsu utsik nintzala mundu danean,
Kanpo guztiak nekusan oso orriz jantziak,
Urak arraiñez, larrak aberez, txoriz abiak,
Eguzkia lo, Illargia ta izarrak garrez,
Ta itxasoak, o! zirudian zelai bat gabez.
Pago arbola bateko kopan zan aurkietan

Arrano guztiz bildurgarri bat, arro benetan,
Joben oñetan begoan legez erpe biakaz,
Tximista edo oñaztari bat artuta eurakaz,
Zeñek ziñoan: «nun da nilako beste bat bada,
Egazti danak erregiñatzat auturik ala?
Lurrera jatsi baldin nai badot beingot batean
Zeartu oi dot goi ustegia beingo batean
Nire egoen burrundareak aberetzarrak
Ipinten ditu ikaraturik bildurrez danak,
Eta nai badot gora ta gora zeruan igo
Eguzkiagan begiak dodaz josi egingo,
Bardin gizona larritzen daben odei illuna,
Oinpean dakust darakustala umilltasuna.

FELIPE
ARRESE BEITIA,
(1841 - 1906)

Antxina, erri batetik bestera joateko, bide ziorrak eta burpide bedarrak edo estuak egozanean; aberats edo dirudunak zaldiganeko kartoletan berera jesarrita, txaka-txaka, oinbideak zear, mendirik-mendi joaten zireanean; gaztaña zugatzari gexoa agertu-orduko, ta olloak euren txitatxoak egopean bero-berotan eukiten dabezan lez, Gernikako Aritz ederrak eskurrik-beste lege, ondo neurtuak eta obeto zainduak, bizi-bizirik, bere orripean eukazanean, burdinbide, tximist-argi ta oraintzuko asmo ta aurrerapide asko agertu-orduko; Mundakatik Bermeorutz, ordulaurengo bidean egoan Ondartza izena eban baso-etxe zar, orma sendoakaz egiña. Etxe onek eukazan ezkaratz edo sukalde ona, iru lo-gela nasaiak, berbaleku txikitxo bat, sabai ta goianengo zabalak eta korta eder bi, abelgorri ta ardientzat; baitta etxe-aurrean egozan laba-gela ta ollatoki onak euren tellatuakaz. Ganera etxaguntza onek eukazan sei solo lurlantzarako, ta basotxo bat, bedar, orbel, ota, ira, egur da beste baso-etxean bear zirean gauzak zuzentzeko.

Ondartzatik urre samar egoan itxasertza, atxak, atxarteko arritzak, lapa, moxilla, mangoliño, lanperna, karramarro ta abar; baitta Murgua eritxon atx andi biribil bat-be, eguraldi onetan atx-arrain onak arrapatzen zirean lekua.

JOSE MANUEL
ETXEITA,
(1841 - 1915)

- Nor zattut; noiz jαιο ziñan; nundarra zara?
- Gixona naiatzu —erantzun eutsan Bertoldak—, eta amak erdi ninddubanian jαιο nintzan; nire errija, barriz, ludi onetakua da.
- Asabatzat eta ondorengotzat, nortzuk dozuz gorantzakuak eta berantzakuak?
- Indijabak; sutan irakitten daragoioela, lapikuan gorantz eta berantz, igo ta jatzi ibilltten jataz-eta.
- Ba-al-dozu attarik, amarik, anairik eta arrebarik?
- Ba-dot atta, ta batta ama, ta anai-arrebak be; baña guztijak itzi dodaz illik.
- Zelan diñozu ba-dozuzala, guztijak il ixan ezkerok?
- Nik etxetik urteieran lotan itzi dodaz guztijak, eta onegattik diñotsut guztijak dagozala illik. Lo datzana ta illik dagonaren artian alde gitxi, nik uste, atan be luari erijotzearen senidia esaten yako-ta.
- Zein da ixan lettekian gauzarik laster ta ariñena?
- Oldozmena.
- Zein da ardaurik onena?
- Iñoren etxian edaten dana.
- Zein da iñoiz beteten eztan itxasua?
- Gixon zekenaren diruzalekerija.
- Gastiagan ixan lettekian gauzarik itxusijena, zer da?
- Esanekua ez ixatia.
- Salerosliak euki legijan gauzarik ezaingarrijena, zer da?
- Guzurra.

- Zein da etxian ixan lettekian surik andijena?
- Otseñen min gaiztua.
- Nor da dattekianik ergelena?
- Bere buruba jakintsubenatzat daukana.
- Zeintzuk dira osatu eziñeko gatxak?
- Ergelkerija, bizijena ta zorrak.
- Nor da amari miña erretan dautson arako semia?
- Kandelearen babilla.
- Zelan egingo zeunke galbaian ura ekarteko txiztillik ixuri barik?
- Lettu artian itxaron egingo neuke, ta ixotz egiñik ekarriko neusketzu gero.
- Zelan egingo zeunke txakurrik barik erbija atxikitzeok?
- Egositta egon dattian artian itxaronda.
- Garun onekua zara-ta, eskatu zeu zer gura, otu dakixuna emoteko gertu naiagotzu-ta.
- Norberenik arian be eztauanak ezin emon legijo ezer iñori.
- Zer dala-ta ezin emon negixu nik zuri opa dakixunik?
- Zorijon billa nabil ni; zu ain-bakua zara-ta, ezin emon ziñeits arian be.
- Ez-ete-naiz ni, ba, zorijoneko, bakaulki garai onetan jezarri al nattekiala?
- Gorengo jezarten dana, bera jausteko be urrien dago, ta batta amiltzeko be.

BERNARDO MARIA GARRO,
OTXOLUA
 (1891-1960)

Arratiako Igorre (erderaz Yurre) deritxon basauritxoan, Garamendi izeneko etse baten gizon aandi bat, itzala, Txilibristo eritxona, bizi zan. ¡Indarretan baeukan, indarretan! ¡Jesus, Maria ta Jose! Urkusun gora Garamendira u rdia lepoan eroaten euan ta kontuak atara. Efékondo baten orrazi bat, lamin-orrazia, aurkitu euan bein eta kolkoan aurrera yoan gure Txilibristo. Lamina batek esan eutsan: Txilibristo, ekazu orrazia, ezpabere nik egingo dot zure bizia.

Txilibristok laminaa saputzeti oratuta etsera, Garamendira, eroan euan. Lamina au beste guztiak legez ezne-zale utsa zan. Egunak eta egunak igaro dakiezan etsekoai, baituta euken pisti areri ezer eraso ezinik. Mutua zirudian. Bein, bera suton doan egoala, eznea mazkeluan irakiten asi zan. Lamiak eznea arpelik galdu ezeitean, berba egiteari emon eutsan, auxe zinoala:

-Txuria gora, txuria bera.

Etsekoak orduan berba geiago eragitarren gogor artu eudien. Batek lamiak zelan galdu eitekezan preguntan eutsan. Auxe erantzun euan:

-Doniane-goizean yaioriko zekor nabar bi iteileaz errekan ibilita, galduko litekez lamiak.

Auzorik auzo beingo baten zabaldu ziraan lamiaren berba onek, eta Arratiako gorta guztiak arakatu eudiezan Doniane-goizeko zekor nabar bila. Ganeko egunetan soloko zokilak austen baizen gogoz eragoioen zekorrok iteilea erreketan narraz erabilten, lamiak uxatu gurarik. Ordura-ezketino ezta inguru aretan laminarik battxo bere arean azaldu.

RESURRECCION
M. AZKUE
(1864 - 1951)

AZKATASUNA

Zugatz-abar-artian
txio-txioka
eta ijuti dabillan
urretxindorra,
pozik bai-dago,
ta pozik egon daike
azke dalako.

Arkaitz-oyarrez-ziar
amatxu-billa
dabillan oreintxuba,
beti ijutika,
pozik bai-dago,
ta pozik egon daike
azke dalako.

Iren errijon bertan,
miñez alaka
eta intziriz aguan
euzko gaxua:
pozik ezago,
ta ezin egon, azke
ezazalako.

LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI
BINGEN AIZKIBEL
(1893 - 1971)

Etxe onetan egon zan lengo egun baten Araya Arabako abertzale benetako bat. Axe da gizona, a! Ez dogu emen jarten bere izena, dakigulako atsekabetuko dogula, ta bearbada, okerra ekarri gengikiola bere bizikeran.

Esan euskun zoritxarrez ez dakiala euskerea, bere aitaitak jakin ebala baiña. Jakiñez onek ez dautsola bein be ardura txikerrenik emon, lengo urte baten bere Aberria zein dan jakin arte.

Orduantxe mindu zala euskeraz ez jakiteaz, euskotarra izanik, eta asmo sendo bat egin ebala bere umei jakin erazoteko.

Euskalerrietan ekandua dagoala mutil-neskatoak bidaltzea erdereia ikasten Araba aldera, ta ekandu auxe gogoraturik Bergarako bere ezagun bateri esan eutsola iñok baeukan asmorik olan umerik bidaltzeko Arabara, beronek ordeaz bidalduko ebala bere ume bat euskerea ikasten.

Idoro eben bat, eta truke egin ebezan umeok. Bergarakoak, bidaldu eban Arayara neskato bat, eta Arayakoak Bergarara mutiko bat. Orretara egon dira ume biak amairu illabetean, etxe on eta ezagunetan, gastu bagarik.

Arayako abertzale onak diño, bere mutikoak euskerea ederto ikasi dauala; ta orain daukola asmoa bigarren umea be olantxe bidaltzeko euskalerrira, ta irugarrena be bidalduko dauala, ta orretara bere ume guztiak ikasiko dabela, ta etxean euren artean euskeraz beti itz egiteko aginduko dautsela.

la, maitetasunak zelako bideak idoroten dauzan!

Geuk esan geuntson arabatar zintzo oneri, umeak jarraituko ete eutsoen asmo eder-eder orretan, eta erantzun euskun ori lortuteko esaten dautsela bere umei euskerea dala geure odolari dagokion elea, euskerea dala euskotarren ezaugarria, euskotar onak izateko euskerea jakin bear dabela.

Itz baten esateko, amaitu eban arabatar onak, sendo-sendoro abertzaletuko dodaz umeak, eta aunexegaz naikoa da euskerea maitatu daien, eta maitatu ezkerok ez dabe lagako.

Auxe, Arayako arabatar auxe lako asko bageunko, gaurtik ogei urtera... emen izango litzake erdaldunen ariñeketea!

Arabatarrak egiten dauana, ezin leie egin beste askok?

EVARISTO BUSTINZA
KIRIKIÑO
(1866 - 1929)

Heldu gara aberrira azkenean be. Hemen gara, mutilok! Hainbat ordu lehenagotik genbiltzan begira non agertuko ete zen geure txoko kutuntxu hau, eta halako batean, horra non agertzen den Santoñako mendi tontorra! Ha zen poza! Barruko euskotar guztiok genbiltzan bata besteari erakusten herri zati hori. Eta gure ontzi eder honek esan eiketan pertsona bizi batek legez ikusi ebala, berehala ohartu genduen ba makina bere abiada handiagoaz ebilela. Nire ustez ontziak berak be esaten eban; «ni hangoxea naiz, nik haraxe gura dot». Beti gengoan bost-sei orduan geure mendi alaiok ikusten... baina noizko heldu? Beti ibilten eta inoiz heldu ez. Ha zen lorra!

— Ez deritzozu, Batxi, guztizko zoragarriak direla horreek mendi ederrok euren gailur tontordunokin, aldats gorak eta sakonuneekin eta hainbat zuhaitz orlegirekin?

— Bai, esan neutsan. Nork euki leikean hitz-neurlari askok daukan hala, oraintxe bertotik ontziak abiadan atzetik dauen bits luzenga batetik ikusi, eta bestetik horreek gure asabak landu eta ondu ebezan mendi jagiok, berton gagozen lekutik hitz-neurtu batzuekin abestuteko.

Baina ezin, ez dakigu-eta. Baina bihozduak bagara, gomutatu daigun zelan dagozen mendi horreen barru-aldetik dagozen herriak. Edertasun hori bakarrik da ba guretzako urrunetik ikusten doguzelako, eta halako gure asaba kutunek utzi ebezan lako bardin-bardinak direlako urrunetik begiratuta. Baina barrurantz sartzen bagara, eta bertako jende asko ikusten badogu, bakarrik ikusten dogu hemendik, mendi hareek legez, herri eder baten adarrak, baina adarrok dagoz mendi horreek daukien mardultasunak ihes eginda. Mendiak bardinak ziren gu aske ginenean, baina jendearen ekanduak... Ai!, honeek ez dira lehenak.

JUAN BAUTISTA BILBAO,
BATXI
(1887 - 1916)

EGI-BIDEA

Egi-egarriz gustiz aulduta
bein bidezti bat zegoan,
bidekatuta erantzun billa
oldozten bere barruan:
Nondik sortu naz? norantza noa?
Zertako nago ludian?
Gaudi eder au yakin neinke nik
zeñek egiña ete dan?
Berez sortua ez tirudi ta,
norbaitek egin dau ziñez!
Ze asmoz baña egin ete dau
yakin gura dot yoranez.
Bizitz igeskor onen ondoren
bai ete dago besterik?
Eriotz baltzan beste aldean
ete da sari-zigorrik?
Gorputz ustelkor onez gañera
badot nik ezer barruan?
«On egin beti, txarrik iñoz bez»
nor diñostana gogoan?
Zorun egarriz dodan biotz au
ete da iñoz be aseko?
Ludi onetzaz iguintzen da-ta,
nok egiña da? norako....?

GABRIEL
MANTEROLA,
(1890 - 1977)

Antxiña, *Pagatzarteko* mutilla, Ezkubaratz-era orbeletan joan zan. Eta, mendian landan zintzo ziardua, gabaren oial baltzak, berak uste eban baiño leenago estaldu eban egunaren argia.

Gabaren illuntasunaz, gure mutilla zerbait ikaratu egin zan, inguru lamiña ta sorgin-leku bildugarria zana ba-ekian-eta. Lamiñak ainbeste be ez eben bildurtzen; sorgiñak, ostera, ikaragarriak yakozan, gaiztoagoak ziralako-edo...

Eta gabaren aldi bakana, oinkada ixillez aurrera yoiala ikustean, orbel-zorro andi bat bizkarreratuta, etxerantz bizkor abiatu zan. Bidean, ixiltasun miragarri bat somatzen eban, gizonik ez abererik munduan bizi ez bai-litzan...

Alako baten, baiña, ixiltasun itzelaren erdian, ujuju zoli ta alaiak entzun ebazan. Eta zarata arekaz ikaratuta, bere begiak Sagarmin-go landa zabalera zuzendu ebazan. Eta antxe, landan bertan, lamiña pillo bat neskatilla lirain eta ederren antzean dantzan eta dantzan ziarduela ikusi ebazan. Orduan, Pagatzarte-ko morroskoa, neska dantzariak obeto ikustearren, bizkarrean eban orbel-zorroa lurreratuta, arri-mokil baten ganean patxaraz-patxaraz jesarri zan, eta aldi luzetan adi-adi egon zan. Ainbeste ta ainbeste emakume eder euren soin luze-meeakaz —luma utsezkoak bailitzazan—, aizearen soiñu-oster txairo ta bizkor jolasean ziarduela konturatu zan. Alako ikuspenik!

Eta ikusten eban ikustekoaz osoro geldota, bere kolkorako auxe iñoan: «Oneik bai dantzariak! Onako emakumerik nire begiak egundo ez yoek ikusi... Orrelako bategaz, orraitino, aiko-maiko andi bagarik ezkonduko nintzakek... Baiña, tamalez, paitak lakoxe oiñak dabez-ta, ezin ezkondu orreik lako bategaz: gure amak nire emaztea lamiñea dala beingoan igarriko leukek-eta. Auxe tamalgarriena!»

Mutillak buruan orrelako zerak erabillezan artean, lamiñak euren jolas bakanak amaitu ebezan. Eta amaikeran, lamiñarik ederrenak, begiak eta eskuak gorantz jasota, urrengo bertsoa abots zoragarriz jaurti eban:

*Eguzki, illargi ta izar,
aizeak bere egoak izan,
zuekandik etorriak
gu guztiok izan.*

ERROSE
BUSTINTZA,
(1899 - 1953)

ALEJANDRO BILBAO,
ERRAMUN MARURI
 (1884 - 1966)

PINPILINPAUXAK

Bein batean ninyoyan ni
 Bide zabaletik,
 Eta bi pinpilinpauxa
 Bide bastarretik.

Egazka yoyazan biak,
 Ez goitik ez betik,
 Eta ni oldozkunetan
 Ninyoyan ondotik.

Biak zirean zuriak,
 Ganera politak,
 Zirudian eukezala
 Maitasun-izketak.

Zoruntsu zebiltzan ayek
 Zearkak egiten
 Eta batak besteari
 Gauz asko esaten.

Baño, ai! sasi artetik
 Urten da txoria,
 Ta une baten sartu daitu
 Pikutik barrura.

Ai, neure amets gozoak
 Ondiño barruan!
 Jango ote zaitue zuek
 Beleak bidean?

Txakur batek bere aoan aragi zati bat zedukala, igaro nai izan zuen Ibaia batetik bestera. Igerian zijoala, ekusi zuen uretan aoan zeraman okela zatiaren keriza, ta begitandu zitzaion zala benetako aragia. Damu ematen zion ez arrapatzea; ta azturik aoan zeramanaz, murgildu edo mus eginik uretan, dendatu zan arrapatzera. Idiki zuen orretarako aoa; erori zitzaion aoan zedukan aragia; keriz utsari kolpe egin da, ez zuen ezer atera, ta galdu zuen berea. Abiatu zan amorrus esaten, zerk erabilli nau geiagoren billa? Zori gaiztoan galdu det nerea.

Ipui onek esan nai du pakean gorde bear degula garbiro deguna. Galdu oi dala bide onez dagoana, geiegi iduki naiz. Obe dala, esan oi dan bezela, etxatxori, edo kurro bat eskuan, Arrano egatua baño; Guzia billatzea dala guzia galtzea; bakoitzak utsi bear diola bereari, ta larga iñorenari.

BIZENTA
 MOGEL,
 (1782 - 1854)

Miraritu ziñan igaro dan egunian ikustian zenbat mesede zor deusaguzan aberetxu batzubei. Sedia txiribirija bati eta tinterik onena ta perlak kontxa batzubei. Bada oraindik miragarrijagua da aberetxu batzuk erakusten deuskubena, emoten deuskubena baño.

Erliak goixetik gaberaño diardube biarrian gelditu baga. Ez dabe jaten, ezpada egunoroko janarija. Badakije etorriko dala neguba, eta orduban ezingo dabela urten erlauntzetik. Alan erakusten deuskube biar egiten al dogunian, ezin doguneko, eta gordetan daukagunian, ez daukaguneko. Berba baten, erakusten deuskube izaten biargiñak ta begiratubak. Biarretik ta begiratuba izatetik dator aberastasuna ta ondo izatia. Biarra da onera guztijen sustraija; ta alperreriya, gaistakiriya guztijena. Baldin guk guztijok egingo bagendu erliak egiten dabena, biziko giñateki aingeru batzuk legez.

JOSE ANTONIO
URIARTE,
(1812 - 1869)

Erdal-errian bizi naz orain,
Erderearen lurrian.
Ementxe nago: Salamankako
uri erdalzale zarrean.
Ementxe nabil, Euskera Amatsu,
erdaldunakaz batean.
Erderea dantzut abo danetan
emen zatean-zatean;
ta ezta mirari, bizi naz bada
Erderearen Etxean.
Erderea entzun bear dot, emen
bizi nazan bitartean,
Erdal-erria Euskal-erritu
egiten eztan artean.

Erderearen otsak dantzudaz
asko ta alkarren atzean.
Bere durundu gogorak dabiltz
belarriaren ertzean...

Nayago dodaz, Amatsu, zeure
otsak, ots onen aldean...
Baña... mirari al da entzutea
Erderea erdaldun-lurrian?
Oituta gagoz entzuten, bai! bai!
euskaldun-leku danean
Erderea gora Erderea bera,
ta euskaldun askon artean
dantzugu euskera erderaztua,
euskera erderaz nastean,
euskera bako erderea eiteko
modurik eztagonean.

Or baño zori obagoa dozu,
Ama Euskera, emen urrean.
Or Erdereaz yosten zaitue,
ta emen guztiak bakean
isten deusue,... berbaille danak
erdera egiñik utsean.

PAULO
ZAMARRIPA,
(1877-1950)

GIZONAREN AHOA

Ez zazue tapa
gizonaren ahoa.
Defendi dadin.
Hainbeste bidegabe
egin zaio
azken ehun mila urte honetan...
Orain,
besoak
indar-gabeturik ditu,
burua erdi-bitan;
ez diozue
kopetan adarrik ernatzen
utzi;
ebaki dizkiozue
eskuak,
ez dezan
ezpatarik astin.

GABRIEL
ARESTI,
(1933-1975)

Hor datza.
Ezin defendi diteke
indarrez.
Bakar-bakar-bakarrikan
geratzen zaio
hitza.
Baina ez zazue,
baina ez zazue,
baina ez zazue,
ez zazue tapa
gizonaren ahoa.
Hitzaz
balia dadin,
hitzaz
zerbitza dadin.
Honela konpreni
dezazuen
zertarako
jaiotzen den
mundura.
Ez,
ez zazue tapa
gizonaren ahoa.

JOSE ANTONIO
OAR-ARTETA,
(1900-1978)

Naiz gizonetzko, naiz andrazkoen artean beti izan oi
dira batzuk baikorrak edo itxaropenaz beterik, dena
ondo ikusten dabenak. Beste batzuk, ostera, ezkorrak,
edo itxaropen txarrez, munduko jazokun eta gora-beera
guztiak ikusten dituenak. Dana beti illun eta beti baltz.

Irudi onen bidez ikusiko dozuz, gauza bardin-bardin
bateri begira dagozala, bat baikorra ta bestea ezkorra.

Mai baten, arpegiz-arpegi jarrita egozan gizon bi
euren aurkietan. Bonbil-erdi arda euren euren maian.
Ezkorrak begiratuten deutso bonbillari eta diñotsio bere
aurrez-aur eukan aiskideari: “Aiskidezarra, ia etxakeguk
bonbil-erdi ardau baiño”. Ta baikorrak dirautso: “Oindio
be bonbil-erdi ardau jaukaguk. Ainbat txopera jaukak
onek oindio!”

1940. Parkatu, baina txarto irakurri dozu. Hori ez da «mil novecientos cuarenta» irakurtzen, «milla bederatzirehun eta berrogei» baino.

Gerrate ondoko urteak oso gogorak izan ziren Bilbon, janaririk ezagaitik batez ere.

Mutikotxo bat izan nintzen ni orduan. Baina ondo gogoratzen naz zelako gosea pasatu nuen eta, hori zela ta, zelako lapurtxoa bihurtu nintzen.

Behin baten, Erriberako merkatuaren ondoan egoen kamioi batetik kereizak ohostu genduzen nire lagun batek eta nik. Kereiza ederrak eta gozoak benetan! Gogoratuz bakarrik ere estomagua dantzan hasten jat.

Arineketan Santantoiko zubipera joan ta «zuk bat» eta «nik beste bat», «zuk bi» eta «nik beste bi», «zuk hiru» eta «nik beste hiru»... kereizak jan eta jan hasi ginen.

—Hazur eta guzti jaten dodaz nik —esan neutsan, halakoren baten nire lagunari, jan beharraren jan beharraz berbak heurak ere mamurtuz.

—Hazurrik ba dauke, ala? —erantzun eustan nire lagunak, zapi kereiza batera ahora sartzen zituan bitartean.

MIKEL
ZARATE,
(1933-1979)

Bela batek ostu zuen bein leio batetik gaztaia, ta eraman zuen arbola gañera. Bazekusen Aizeriak, ta adurra zerion ezpañetati gaztaia jan naiaz. Zerbait ateratzeko asmoz esaten dio arbolaperik.

O Egazti ederra. Ez dago zure berdiñik egodunen artean. Zure belztasuna argi egiten du. Zenbat eta zarrago, anbat eta ederrago. Eta nor zu baño egiñagorik korputz itxuran? Baziña beste txori soñulariak bezelakoa, kantatuko bazendu Birigarro batek beste, guziak garaituko zinituke.

Arroturik Bela eroa Aizeri askotako aren erausi labañekin, erakusteko bazekiela berak ere Birigarroa adiña soñua jotzen, idiki zuen mokoia kantatzeko asmoz. Orra non erori zitzaion lurrera arrapatu, ta arbolaratu zuen gaztaia. Ozta jo zuen onek lurra, non arrapatu zuen etorkizunaren zai zegoan Aizeriak, ta iges egin zion bere leizara. Jarraitu zion Beleak eskatzen ziola bere gaztaia. Aizeriak oñak arinka zijoala eranzun zion:

-Ez da astoentzat ezta, ez dek tontoentzat ere gaztaia.

BIZENTA
MOGEL,
(1782-1854)

Txakur-katuak, nork sinistu?
 Zeuden bein erretillu batean
 Alkarrekin jaten pakean,
 Ta ez ziran batere tximistu.
 Etxeko jaunak bertatik
 Auzokoai, erakusteko zergatik,
 Deiturik, abiatzen zaie esaten,
 Nola ez dituzute ekusten
 Etsai gogor bi paketurik
 Eta mai batean alkaturik?
 Txakur, ta Katua adiskide,
 Balira bezela senide?
 Zer egin ez lezake ekanduak,
 Eta gauza batera oituak?
 Beazuna bera eztitu;
 Gizon sutsua otzitu;
 Aserre erraza bigundu:
 Okerrena ere zuzendu.

BIZENTA
 MOGEL,
 (1782-1854)

Egin zuten bein Erbiak beren artean batzar, edo
 bilkua, ta igaro zituzten itz oek:
 —Zer da guri gertatzen zaiguna? Egun on bat ez
 daukagu; beti bizi gera kezka gogorrean etsaiz
 inguraturik. Txakur ta gizonak gure billa dabilta,
 ala basoetan, nola soro, ta ibarretan. Gaberako
 ere baditugu baso-txakurrak, Aizeriak, ta oek dira
 Eizaririk gaiztoenak. Zenbat gure lagun erori dira
 Txakur, ta Aizerien ortzetan? Au ez da bizi izatea,
 baizikan beti ikaraz eriotzaren atzaparretan ibiltzea.
 Obe ditugu bota geren buruak ibai batera, ito
 uretan, ta kendu betiko larritasunak.
 Erabaki zuten ala egitea, ta joan ziran ibai bateko
 egi, edo ondora. Dakuste uste gabe, nola an arkitzen
 zan igeltegi bat, guzia ikaraturik. Orduan esan zioen
 beste lagunei Erbi batek:
 —Ez gera bakarrik gu beldurrean bizi geranak.
 Badira bai gu baño ere beldurtiagoak. Ona nola
 gu ekusi ta beste gabe iges egin, ta bota dituzten
 buruak ibaira Igel txarrak. Ez degu ernegatu bear;
 etorriko aldira egun paketsuagoak guretzat; gaitzak
 dituzte beren mugak, ta aldiak. Goazen bada lengo
 lekuetara, ta bizi gaitean nola al egun obeagoen zai.
 Ala egin zuten.

BIZENTA
 MOGEL,
 (1782-1854)

«Emakume bik euskeraz itz egin dabela ta, orrenbeste zarata?» esan lei bat-edo-batek; eta nik darantzutsot: Bai, zarata andia, geure bizi guztian ikusi ta ikusten dogulako señoirita ta señoiritoak eta euron antza artu gura daben guztiak beti espaiñeraz itz egiten dabela, ostikadea emonaz euskereari, geure abenda-ele ederrari, bestea baiño politagoa ta gozoagoa berau izanik; lengo eguneko andereño politak lakoak balitzaz beste enparauak Euzkadin, beti euskeraz diñarduenak, laster azpikoaz gora jarriko litzake gure Aberri au, ta goian egongo litzake goia dagokiona ta beean gaur goian dagoana.

Eta gora andereño euskaltzaleak eta... beste aldera señoirita erdaltzale puixikak!

EBARISTO BUSTINTZA,
KIRIKIÑO
(1866-1929)

Euskaldun guztion anaitasuna zelanbait erakustearren, ezarri gura izan dot zure izen entzutetsua (Abbadieko Antoine iaunari) ene irakurgaitxu onen leku agirienean. Zuk modu askotara, ezin obeto ta sarri erakutsi dauskuzu Bidasoatik onanzko euskaldunoi beste alde orretakoak dauskuen maitetasuna; nik, ortikoai emendikook dautsegunaren ezaugarritzat, gaurrate ezin ezer agertu izan dot.

Euskaldunak: nire izen da izatetxuak ezin dabena, Aitalen baten izate ta izen onak egin bei. Batu beiz gure biotzak bein da betiko.

Zazpi alaba galant daukaz gure Ama laztanak: Frantziari dautsela iru, Espaiñaren mendean lau. Zazpi aizta onek, orain legez erdal-erri bik menderatu bearrean, beste euron beste erdalerrik eurentzakotu ta bere, zazpirok biotzez da egiaz izango doguz beti bat: Euskal-erria.

RESURRECCION
MARIA AZKUE,
(1846-1951)

Asarre bizitan doa gabarra bat ibaian. Ikatzez beterik doa, gora ta gora. Asarre bizitan doa. Eta marmarka.

— Ez, ez eta ez. Ez dot nai onela bizi. Ito ta kito. Arte, gibel, eroapen, egoarri, pazientzia...! Baiña noiz arte? Noraiño? Ez, ez. Onela bizitzekotan..., oba il. Orixe, il. Ai ene! Au eziñaren eziña ta larriaren larria!

— Asarre zara, lagun, ta aieneka zabiz? Ta nik, zer esango dot orduan nik? Zuk daroazun ikatz astun ori eta zeu, biok zaroedaz nik —diñotso ibaiak.

— Bai baiña, ni ez naz zu.

MIKEL
ZARATE,
(1933-1979)

Bertsolariak euren barruko sua agertzen dabenean, erria bizkor daroe.(...)

Bertsolarien agotik neurtitzetan kanpora etorzan aberriaren miñak, abendaren ezilkortasun naiak, erriaren askatasun zaleak. Bakoitzak barruan eukozan leiak, oldozmenak, edertoago agertzen ziran bertsolarien agotik.(...)

Bertsolariak atsegin jakuz guztioi, baiña euren alde ez dogu ezer egiten. Geienak sendi apaletakoak dira, ta eurak liburuak erosi edo beste jakingarri izango leikiozan gauzak eskuratzea, ez dabe errez. Laguntza ba, opaldu bear jake. Bizkai aldean zenbat bertsolari dagozan, nortzuk diran eta noragiñokoak jakin gurean dabiltz batzuk. Arteztu daigun gurari ori. Urretxindor kumak bear dira, aberria alaitu eta bizkortuteko.

ESTEPAN URKIAGA,
LAUAXETA
(1905-1937)

DOMINGO
AGIRRE,
(1864-1920)

Gorde daigun baikoitzat maitagarriro gure lur ataleko itzera, jaso daigun aldoguni goreneraño; baña eztaigun urrundu beste anaiena: artu daigun beste euskaldunakgandik geuk eztaukaguna, bada olan artzen ditugun itzak beti eukiko dabe dabee iturburu bat, euskeria.

Iokatu daigun gogotik euskaldun askoren aoetan entzuten diran euskera mordolluen kontra; alkartu gaiteze danok euskeriaren alde lan egiteko, eta izan dedilla Euskalzale probintzi onetan ezagutua Euskal-Erria-ren bitartez, eta Euskalzale-ren bidez Euskal-Erria Bizkaian.

Alkarturik egiten daugun lanak bere naikoa ta geiegi trebesi ta neke billatuko ditu bere bidean. Batetik, erdaldunen artian bizi izandako jentia, euskera gaisto nardagarrian mintzatuten diranak, izango dira gure arerio, eta esango dabee eztala gure euskeria adituten; bestetik, euskaldunen artian jaio ta bizi arren gastelarrez irakurri, gastelarrez iardun da gestelarren izkirakinde edo ortografia (esan daigun erderaz, obeto aditu daien) bakarrrik ikasi dabeenak, esango dabee alperrik galtzen dogula gure euskera maitia erdaldunen antzera izkiribiduten eztogulako.

GERNIKAKO
KOPLADIA

Sarritan egoten naz neu bere pentsetan, ez ete da alperra zutunik kantzetan?

Begiak barrez-barrez biotza negarrez, sarri apartatzen naz zugandik dolorez.

Pasatzen naizenian zure atetatik, negarrak urtetan deust begi bietatik.

Urte barrian saiatu nintzan dama gazte bat billatzen, atia kos-kos jo nion baña ez ziran korresponditzen

Iru ta iru sei dira eta beste seirekin amabi; neskaxa baño naiago nuke ardaua merke balebil.

Amak emon baleustez amabost ogeiko, ezkonduko nintzala udabarrirako.

Ondarrutar oriek egin dute plana
egin bear dutela egun artan lana,
amurratzen jarri da Lekeitio
aurten urrikari den oien kontra dana.

Estropadan asi ziran biak alkarrekin
aurrera joan zitzaion bentajearekin
“ea nere mutil maiteak piska bat egin”
San Antonera-orduko biak ia berdin.

Zumaiara-artean aurretik ederki
nobedade egin zaio tostartean batiç
erremuratutzeko Felipe jaun ori
San Antonera-orduko ukatuta geldi.

Ondarrutar oriek zuten pantesia
olatua popatik txalupan grazia,
atzetik or eldu da txalupa bestea
gaizki egin zaioten popatik eltzea.

Popatik eldu eta arrauna kentzera,
orduana artu zuen txalupak bestera;
oiek baiñon gutxiago gu bat ere ezkera
;zer lotsa daramaten oiek erbestera!

Erbestera joanda endrerruan asi,
ederrak ematea zutela merezi,
apostu irabazten oiek ez nau utzi:
Lekeitiarrak ziran Getarian nagusi.

EUSKAL KANTUTEGIA
(1954ko BERTSOAK)

Egun batian ni ba'nenguan,
kostela-kostel gainian,
ni ba'nenguan kostel-saltzian
ezpabe gari-saltzian.

Iru damatxu etorri ziran
bata bestien atzian
irugarrenak pregunta eustan
gariak zegan zirian.

-Bestientzako dirutan eta
zuretzat laztan-trukian.
-Ez nagizula lotsatu, arren
onelan plaza betian;
onelan plaza betian eta
ainbeste jente artian.

Orrela bere esan bazeustan
leku sekretu batian,
gariak eta zeu ta neu bere
an konponduko giñian.

Ama neuria labarako da
goiz edo arraltsaldian;
paseito bat emoidakezu
ama laban dan artian.

ANA JUANIXE BALADA
(ONDARROAN, 1935)

Ama labatik etorri ta
mutil-usaiña etxian...
-Ana Juanixe, Ana Juanixe;
zein da dauana etxian?
-Katalinatxo auzokua da
beroi laban dan artian.
-Eztona ori Katalinatxu;
bizarra dau okotzian...
-Itxagon daizu, mutil, itxagon,
argia piztu artian
argia piztu artian eta
ikusi zeu nor zarian.
-Ama berorrek ez dauela nai
neure osasunik etxian;
biyotz-illunak egiten yataz
argiya datorrenian...

-Urten daik, mutil; urten daik,
mutil,
alako bentanarian,
ama neurriak urten dagiyan
kanpora sospetxerian...

RESURRECCION
MARIA AZKUE,
(EUSKALERIAREN YAKINTZA)

Andra bat suetean goruetan egoala, gabeen gabeen katu bat etorten ddakan.

¡Jesus! -esan eutsan bein senarrari-. Katu peste bat gau guztietan agertu ta gonarik gona ibilten ddata. Bildur bere banaz suetean egoten.

Neuk egingo ddonat goruetan gaur gabeen, ea katu ori neuri etorten ddatan ikusteko.

Badago gizona irra ta irra eta suete-goienetik bera baddatoroko katua.

Ateostera yoan ta dirautso:

¡Gizona ta goruetan!

¡Katua ta barriketan! -esanaz goru-kirtena yaurtigi ta anka bat ausi eutsen gizon gorulariak katuari.

Urrengo egunean auzoko atsoa errenka-errenka ebilen.

Txikitxu politori ,
zelan zara bizi?
Joan dan aspaldian
ez zaitut ikusi.

Joan dan aspaldian
ikusi ez banozu ,
etorri ta laztan bat
emon egidazu.

Txikitxu politori ,
zeu neure laztana,
katiatu ninduzun
librie nintzana.

Libriak libre dire
zeu ta neu katigu,
librie ona dana
guztiok dakigu.

Txikitxu polit zara zu
zeuk bere ondo dakizu,
akaso kaballeruen bat
enamoratuko jatzu.

GERNIKAKO
KOPLADIA (II)

Arratian, beste ibar askotan bezala, komentu txiki
baten bikarriotzat
fraide zar bat egoan, bere komentutik matxinada
baten ondoren ateratikoa.

Lukurreru itzela zen, irapazten euana gorde eta
gorderikoa eraltzen ezekiana.

Errelaria zan bera, zigarrozalea. Ezeuan, baina, bat
bere arean erosten.

Arratsaldera ezkerro palatuginen ebilen batengana
yoan oi zan egunean egunean.
Baserritarak urrundik ikusi eban arratsalde baten ta

-Gaur eztauat emongo bada- zinoan bere barrurako.

-Kaisio! Badaragoiok?

-Bai, badaragoiot.

Beste zerbait alkarri esanda gero,

-Tabako-orri puska bat ezete daukak- itaundu eutsan.

-Utxi neutsan.

-Fumateari utxi dautsala?

-Fumateari ez, emoteari.

RESURRECCION
MARIA AZKUE,
(EUSKALERIAREN YAKINTZA)

Bixitzan
zoruntsu gadixan
biar dogunaren gauzeza!
Kanteak,
ardau-edontzijak
eta mattasun baten poza.

Abestu,
ontzi betia ustu
matte danarekin batean.
Barre-egin
eta ezpan-arin muin bat ostu arrats-berean.

Argidun
berein gauza txukun
ludi onek daukaz grazian.

Ederren
ogei urte lerden
gorputz baltziskan diranian:
bixitzan
zoruntsu gadixan
biar dogunaren gauzeza!

Kanteak,
ardau-edontzijak
eta mattasun baten poza!

ESTEPAN URKIAGA,
LAUAXETA,
(1905-1937)

Euskaldun jaio nintzan,
Ta euskaldun azi,
Euskaraz eustalako
Amak erakutsi;
Euskara laztan maite,
Zabiltz nigaz beti,
Euskara ill ezkeru
Ez dot gura bizi.

Euskaldun neban ama,
Ta euskaldun aita,
Euskaldun neu bere naz,
Eurak legez baita,
Euskaldun ill zirean,
Euskaldun bizita,
Euskaldun Arbolea
Zutirik itxita.

Ill zan aren Arbola,
Guk dogu gaztea,
Izango al dan onek
Osasun luzea;
Biztu dakigun gure
Lege zar maitea,
Zeiñen alde nai neuken
Emon bizitzea.

Eriotza gozoa
Litzake benetan,
Illtea Arbolagaitik
Gure mendietan;
Asko ill ziralako
Gizaldi zarretan,
Asabak bizi ziran
Libre lur onetan.

FELIPE
ARRESE BEITIA
(1841-1906)

Testu hautaketa
Juanra Madariaga

Diseinua eta maketa
Sardina Grafica

Inprimatzailea
Printhus, S.L.



